

«AUZOLANA II» BABESLETTA KOMUNITARIOKO ESPERIENTZIA PILOTUA

[EBALUAZIO-TXOSTENA]

[LABURPEN EXEKUTIBOA]

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AUZOLANA II: EBALUAZIOAREN LABURPENA

2016an, Sirian bizi zen krisi humanitarioak markatutako nazioarteko testuinguru batean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak «Errefuxiatu eta Migratzaileentzako New Yorkeko Adierazpena» onartu zuen. Adierazpenaren helburua zen konpromiso-sorta batean aurrera egitea, migratzaileen eta errefuxiatuen bizitza errazteko, bai eta jatorrizko herrialdeetako eta abegi-gizarteetako herritarrena ere. Konpromiso horiek, amaieran, «Migrazioen Mundu Ituna» eta «Aterperako Mundu Ituna» ekarri zituzten, 2018an onartuak. Nazio Batuen erantzuna zen, II. Mundu Gerraz geroztik nazioarteko babesaren bila zebiltzan pertsonen desplazamendu handiena eragin zuten larrialdi humanitarioen aurrean.

Aterperako Mundu Itunak konponbide iraunkor gisa dituen tresnetako bat berrasentamendu-programak dira. Programa horiei esker, egoera ahulean dauden errefuxiatuak hirugarren herrialde seguru batean birkoka daitezke, eta herrialde horretan hartu ahal izango dira, haien segurtasuna eta helmugako gizartean integratzea bermatzeko. Itunak bide osagarriak eskaintzeko beharra ere adierazten du, herrialdeetan artatutako pertsonen kopurua handitu ahal izateko, proposamen berritzaileak eta diferenteak eginez.

Babesletza komunitarioa da errefuxiatuei arreta eta abegi emateko proposatzen den konponbide iraunkor horietako bat. Babesletza-talde partikularrek, askotariko antolakundeek edo egoera ahulean dauden pertsonen laguntzeko entitateek bultzatzen dute errefuxiatuen abegia eta integrazioa. Talde horien esku daude errefuxiatuak iritsi ondoren egokitze finantza-laguntza eta oinarritzko laguntza, eta horrek balio erantsi handia ematen die. Hain zuzen ere, tresna horren balio erantsia ulertu zelako jarri zen martxan **Errefuxiatuen Babesletzarako Ekimen Globala** (GRSI, ingelesezko siglak), babesletza komunitarioaren figura sustatzeko babes-premiak dituzten errefuxiatuentzako bide gisa zabalduz; estatuen, askotariko administrazioen, gizarte zibileko eragileen eta herritarren rola indartuz, eta eragile horiek mobilizatuz errefuxiatuen babesaren alde.

Ingurumari horretan, eta errefuxiatuei erantzunak emateko konpromisoaren barruan, Eusko Jaurlaritzak «**Auzolana II**» ekimena bultzatu du, Euskadin babesletza komunitarioko esperientzia pilotu bat abian jartzeko. «**Auzolana II babesletza komunitarioko esperientzia pilotuaren ebaluazioa**» txostenak —haren funtsezko elementuak laburpen exekutibo honetan daude jasota— irakaspenak eta hobetzeko espazioak identifikatzea du helburu, eta balio behar du, Auzolana II indartzeko ez ezik, babesletza komunitarioa errefuxiatuak babesteko tresna gisa hedatzen laguntzeko ere.¹

¹ Ebaluazio honetan, Auzolana II programaren planteamendua, egitura eta garapena aztertu dira, funtzionatzen daraman ur-

Auzolana II da Eusko Jaurlaritzak bere lurraldean errefuxiatuei abegi emateko eta integratzeko alternatibak bilatzeko duen konpromiso esplizituaren formulazioa. Maila askotariko lankidetzaren lehenengo esperientzia da Espainian, errefuxiatuen abegiaren eta integrazioaren arloan, eta lehenengoa halaber gizarte zibil antolatua modu zuzenean parte hartzen duena. Ekimena uztartzen da UNHCREk —Kanadako Gobernuarekin batera, besteak beste— sustatzen duen antzeko ekimenen nazioarteko sarean, errefuxiatuen babesletzarako GRSI-Ekimen Globalaren esparruan.

Babesletza komunitarioa, estatuko berrasentamendu-programaren parte gisa

- Herrialde gehienetan, babesletza komunitarioa estatuko berrasentamendu-sistemaren osagarria da. Kasu honetan, ekimena estatuko berrasentamendu-programaren barruan dago.

Estatuz azpiko lankidetzak publiko-privatua

- Esperientzian, administrazioen arteko lankidetzak garatu da, eta eragile publiko eta pribatuek parte hartu dute, gizarte zibilaz gainera.

Eusko Jaurlaritzaren bultzada, koordinazioa eta jarraipena

- Agintaritzen inplikazio-maila aldatu egiten da programa batetik bestera. Babesletza komunitarioko ekimen gutxi dira estatuz azpiko agintaritzen zuzeneko partaidetzak dutenak.

Finantzaketa mistoa

- Babesletza komunitarioko proiektu gehienetan, baliabideak entitate eta/edo herritar boluntarioen taldeek jartzen dituzte. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzak ere laguntzen du ekonomikoki, eta beste laguntza-baliabide batzuk ere jartzen ditu.

Entitateak alde zuzenetik hautatzea

- Ekimen batzuetan, entitate parte-hartzaileen hautaketa geroago egiten da, entitateok parte hartzeko interesa adierazi ondoren.

Lagun egiteko prozesu luzeagoa

- Kasu honetan, bi urteko programa bat aukeratu da, babesletza komunitarioko beste kasu batzuk baino aldi luzeagoa hartzen duena.

Esperientzia pilotu gisa, Auzolana II programak ez du ekarri Espainian errefuxiatuentzako eskaintzen den plaza-kopurua handitzea; proiektu honetara bideratu dira estatuko berrasentamendu-programan parte hartzen duten pertsona batzuk. Badirudi beharrezkoa dela datozen edizioetan babesletza komunitarioko programen ekarpen osagarria bermatzea. Esperientzia pilotuak balio behar du, halaber, eredu gisa beste autonomia-erkidego batzuek babesletza komunitarioko ekimenak garatzeko, gobernu zentralarekin eta beren lurraldeetako entitate eta herritarrekin lankidetzan.

Auzolana II programaren bidez iristen diren errefuxiatuek berrasentamendu-programan parte hartzen duten pertsonen nazioarteko babes-estatutu bera jasotzen dute, eta bermatuta dute programa horretan sartuko direla, baldin eta, arrazoiren baten-

tean. Lan-metodologia ebaluazioko azken txostenaren eranskinetan aipatzen da.

gatik, babesletza komunitarioa behar bezala ez badabil. Auzolana II programan parte hartu duten bost familiek aurrera jarraitzen dute esperientziarekin, eta aktiboki parte hartzen dute.

Eusko Jaurlaritzaren eta esperientzia pilotuaren koordinazioa eta jarraipena egiten duten entitateen laguntzarekin (Caritas Euskadi Bilbon, Andoainen eta Gasteizen, eta Ignacio Ellacuría Gizarte Fundazioa Arrigorriagan eta Portugaleten), boluntarioen tokiko bost talde –gizarte-lanean prestakuntza duen eta lanaldi erdian jardun duen pertsona baten laguntzarekin – errefuxiatuen etorrera errazteaz eta haien integrazioan laguntzeaz arduratu dira.

Labur bada ere, Auzolana II programari buruzko gogoeta hauek azpimarratu behar dira:

Gobernantza. Auzolana II eragile parte-hartzaile guztien arteko lankidetzaren bidez egituratzen da (Gobernu Zentrala, Eusko Jaurlaritza, UNHCR eta entitate babesleak), eta hitzarmen horrek prozesuaren fase guztietan dituzten erantzukizunak zehazten ditu. Hitzarmena administrazioen arteko lankidetzaren eredu da, eta esperientzia koordinatzeko eta jarraitzeko tresnak garatzen ditu. Hitzarmenak eragile parte-hartzaile guztiak koordinatzeko ezartzen duen jarraipen-batzordeak behar bezala funtzionatu du; baina familia errefuxiatu berriak kokatu ziren udalerriekin lankidetzak antolatzeko ezartzen ziren tokiko koordinazio-mahaiak ez dira bere osotasunean garatu.

Entitate sustatzaileak. Auzolana II programan, parte hartu duten entitate sustatzaileak hasieratik bertatik izan dira sustatzaile, hautaketa-prozesu itxi batean. Hurrengo edizioetan, komenigarria litzateke prozesu ireki bat egitea, non hautatzeko baldintzak eta programatik baztertzeko irizpideak adieraziko diren. Hitzarmena, alde horretatik, ad hoc izan liteke entitate bakoitzarentzat, nahiz eta entitate guztiei exijitza izan dakizkiekeen gutxieneko batzuk atxikitzeko. Entitate babesletza-emaileentzako gida bat egitea ekimen ona izan liteke identifikazio- eta hautaketa-prozesua hobetzeko.

Lehen edizio honetan, entitate babesletza-emaileek (Caritas Euskadi eta Ignacio Ellacuría gizarte-fundazioa) ezinbesteko baldintza hauek betetzen dituzte: esperientzia, ezagutza espezifikoa, gizarte-oinarri zabala eta lurraldearekiko hurbiltasuna. Gainera, gutxieneko baldintzak bete dituzte, bai giza baliabideei eta diru-baliabideei dagokienez, bai familia onuradunentzako bizileku-eskaintzari dagokionez.

Tokiko laguntza-taldeak Entitate babesletza-emaileak boluntarioen taldeak prestatzeaz arduratu dira, eta laguntza eman diete garatu dituzten babesletza komunitarioko ekintza guztien koordinazioan eta kudeaketan. Boluntarioei laguntzeko esku-liburu bat egitea ekarpen ona izan liteke proiektua indartzeko, eta dagoeneko parte hartu duten taldeen know-how-a eta esperientzia baliatu beharko lituzke. Hurrengo edizioetarako, aztertzea litzateke zer eskakizun bete beharko luketen boluntarioek, eta ea merezi duen ekimenean parte hartuko dutela bermatzeko eta formalizatzeke konpromiso bat sinatzeko aukera ere.

Gizarte-lanean espezializatutako pertsona baten bultzada eta laguntza izan dute taldeek, proiektuan lanaldi erdiko dedikazioa izan duena. Taldeak lurraldeko pertsoenez osatu dira, askotariko profilak dituztenak (sexuari, adinari, prestakuntzari, okupazioari eta abarri dagokienez), eta horrek erraztu eta aberastu egin ditu barneko lan-dinamikak eta familiekiko interakzioa. Boluntarioen lana da babesletza komuni-

tarioko proiektuen arrakastaren gakoa. Beraz, haien konpromisoa indartzeko, haien esperientziari balioa emateko eta haiei laguntzeko balio lezakeen espazio edo tresna oro aztertzea eta hobetzea da.

Prozesua. Auzolana II programak bi fase ditu: lehena, errefuxiatuak iritsi aurrekoa, eta bigarrena, babesletza komunitarioko jarduerak hedatzeko.

Iritsi aurretik, jatorrian. Jatorri-puntuetan, garrantzitsua da familia onuradunei behar bezala jakinaraztea babesletza komunitarioko programa batean parte hartuko dutela, eta adieraztea zein diren onurak, baina baita ekimenak zer erronka ekar ditzakeen ere: irteera aurreko orientazio-ikastaroek egokituta egon behar dute babesletza komunitarioan parte hartzen duten familietara. Ahal den neurrian, helmugako udalari buruzko informazio zehatza ere eman behar da, itxaropenak doitu ahal izateko eta edozein berrasentamendu-prozesuk dakartzan kezkak leuntzeko. Ahal dela, boluntario-taldean eta onuradunen arteko alde aurreko komunikazioa bultzatzen saiatu behar da (EMN 2016).

Iritsi aurretik, helmugan. Tokiko laguntza-taldeek babesletza komunitarioari buruzko informazioa eta oinarrizko prestakuntza jaso dute, baina interesgarria izango litzateke prestakuntza osagarriak aztertzea (adibidez, kulturarteko gaitasunak), haien jarduketak indartzeko. Tokiko laguntza-taldeek familia errefuxiatuei buruzko oinarrizko informazioa jasotzen dute, baina informazio hori hobetu beharko litzateke taldearen osaera eta iritsitakoan jarraitu beharreko lehentasunezko ekintzak egokitu ahal izateko.

Harrera, abegia eta integrazioa. Tokiko laguntza-taldean eta errefuxiatuen arteko lehen topaketa aireportuan jasotzen dituzten unean gertatzen da. Ezinbestekoa da harrera horretan itzultzaileen parte-hartzea erraztea, elkarrizketarako eta konfiantzarako guneak ahalik eta lasterren sortzeko.

Handik aurrera, boluntarioen lana da laguntza, babesa eta erraztasunak ematea, familia errefuxiatuek komunitate berrian parte har dezaten, egunez eguneko zereginetan lagun eginez. Alderdi administratiboetatik hasita (errolatzea, bizileku-txartela, osasun-txartela, etab.), zerbitzuetarako sarbideetaraino (eskolatzea, osasuna, lanerako prestakuntza, etab.) eta aisialdirako guneetaraino (ingurunea ezagutzea, jarduerak, etab.). Auzolana II programan, tokiko laguntza-taldean inplikazioa handia izan da, eta taldeak profesionalen laguntzarekin eta lankidetzarekin antolatu dira (gizarte-laneko teknikariak), familia errefuxiatuei beti arreta eta erantzuna eman ahal izateko. Aipatzekoa da COVID-19aren pandemiak bete-betean eragin diola esperientziari, baina tokiko laguntza-taldeek erakutsi dute egokitzeko gaitasun handia dutela eta egoeraren larritasuna arrakastaz gainditzeko baliabideak dituztela.

Auzolana IIan, komunitate hartzaileen prestakuntza tokiko babes-taldean eta oinarrizko kontaktu-sarean oinarritu da, oro har sare ugari eta zabala izan baita. Hala eta guztiz ere, babesletza komunitarioko ekimenak tokiko agintariekin, udalerriko gizarte-erakundeekin eta, oro har, herritarrekin duen elkarreragina indartu behar da. Babesletza komunitarioko programen helburuak dira, halaber, asiloari eta aterpeari, gatazkei edo giza eskubideei buruzko sentsibilizazioa eta informazioa, enpatia, elkartasuna eta oinarrizko eskubideekiko errespetua sustatuko dituzten eztabaida-guneak sortzeko.

Auzolana IItik harago. Babesletza komunitarioko prozesuaren helburua da familia errefuxiatuen autonomia eta emantzipazioa erraztea eta indartzea, ahalik eta

lasterren komunitatearen parte aktibo izan daitezten. Ildo horretan, ezinbestekoa da autonomia hori bultzatuko duten elementuak hasieratik txertatzea, baita alternatibak bilatzea ere, proiektua amaitu ondoren autonomia osoa ez bada ere.

1. irudia. Auzolana II: ebaluazioa, laburbilduz

Alderdi orokorrak	Kontuan hartzekoak
Konpromiso instituzional sendoa, Eusko Jaur-laritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak bultzatua.	Ekimena egiturazko programa bihurtzea.
Errefuxiatuen asilo-eskubidea eta giza eskubi-deak babesteko mezu publikoa indartzea.	Esperientziaren informazioa eta ikusgaitasuna hobetzea.
Berrasentamendu-sistema nazionala osatzen duen esperientzia pilotua.	Azkenik, programa piloturako errefuxiatuentzako plazak estatuko programatik sortu ziren, eta hori zuzendu egin beharko litzateke, babesletza bide osagarria baita, definituz.
Babesletza komunitarioko sistema hibridoa. Esperientzia pilotuaren berezko ezaugarria da.	EAEko administrazioaren inplikazioa eragile giltzarria da sustatzaile gisa, eta administrazio zentralaren eta gizarte-entitateen arteko lotura gisa.
Euskadiko babesletza komunitarioko programa diseinatzea.	Ekimenaren plangintza ona: babesletza komunitariorako behar diren helburuak, prozesuak, eragileak, baliabideak eta premiak definitzea.
Administrazioen arteko lankidetzaren indartzea.	Administrazio zentralaren eta EAEko administrazioen arteko lankidetzaren indartzea. Udalen inplikazioa hobetu behar da, haien arteko elkarrizketa, parte-hartzea eta lankidetzaren hobetuz.
Ekimen publiko-pribatua	Eragileren konpromiso soziala indartzen da. Beste autonomia-erkidego batzuek abiaraz ditzaketen antzeko ekimenak bultzatu daitezke (errepikagarritasuna), bai eta gizarte-eragileen kopurua handitu ere.
Babesletza komunitarioa sustatzen duten gizarte-entitateak alde aurretik hautatzea.	Aldez aurreko hautaketak aukera eman du esperientzia, baliabideak eta oinarri soziala duten entitateen parte-hartzea bermatzeko, funtsezko elementuak baitira babesletza komunitarioa behar bezala garatzeko. Eredua errepikatzen, hautaketa-prozesu ireki bat planteatu beharko litzateke, entitate babesletza-emaileentzako gutxieneko baldintzak ezarriz, disfuntzioak saihesteko eta gardentasuna hobetzeko.
Prozedurak indartzea eta tresnak egokitzea, esperientzia pilotutik harago joateko.	Beharrezkoa da birformulazio administratibo bat, proiektua egiturazkoa bihurtzen bada.

Iritsi aurretik	Kontuan hartzekoak
Arrakasta babesletza-emaileen taldea hautatzean eta sortzean, batez ere entitate babesletza-emaileekin izan duten loturari esker.	<p>Profilen heterogeneotasuna bermatzea (adinak, sexua, prestakuntza, etab.), abegi-lurraldean bizitzea lehenestea, eta hizkuntzen ezagutza (jatorrizkoak) balioestea.</p> <p>Aztertzea boluntarioen irauteko konpromisoa eta beste baldintza batzuk eska litezkeen ala ez.</p>
Boluntarioen prestakuntza abegiari eta babesletza komunitarioari buruz erraztea eta indartzea.	<p>Aurretiko prestakuntza hobetzea eta prestakuntza osagarriak aztertzea (kulturarteko konpetentziak, jatorrizko herrialdeei buruzkoak, etab.)</p> <p>EAEko administrazioak boluntarioei laguntzeko gida bat prestatu beharko luke.</p>
Zerbitzuak aurreikustea: beharrak prestatzea eta identifikatzea.	Premien identifikazio ona eta lan-eremuen banaketa ona (tokiko laguntza-taldeen artean).
Zerbitzuak aurreikustea: hobekuntza-esparruak.	<p>Tokiko administrazioarekin eta lurraldeko beste entitate batzuekin zerbitzu espezializatuagoak nola eman aztertzea.</p> <p>Arreta handiagoa jartzea sexuen arteko berdintasunean.</p> <p>Babesletza komunitarioaren, asiloaren eta atarpearen eta, oro har, giza eskubideen inguruko hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea.</p>
Informazioa eta interakzioa jatorri-puntuan.	<p>Jatorrian, babesletza komunitarioari buruz —haren balio erantsia azpimarratuz— eta helmugako tokiari buruz errefuxiatuek duten informazioa hobetzea.</p> <p>Iritsi aurretik, errefuxiatuen eta boluntarioen arteko lehen kontaktu bat, gutxienez, izatea.</p>
Harrera eta lehen abegia	Kontuan hartzekoak
Zerbitzuak ematea: hobekuntza-esparruak.	<p>Entitate babesletza-emaileek errefuxiatuei buruz jasotzen duten informazioa hobetzea.</p> <p>Lehen harrerako itzulpen-zerbitzua profesionalizatzea.</p>
Etxebizitza	Arreta jartzea hautatutako lurraldean dagoen etxebizitza-eskaintzari, onuradunek lurraldean jarraitzea erabakitzen badute ere (haien integrazio- eta gizarteratze-prozesuari eragin diezaioke).
Boluntarioei laguntzeko eta jarraipena egiteko mekanismoak.	Boluntarioentzako elkarrizketa-guneak sortzea, itxaropenei, zalantzei eta bestelako gogoetei buruz. Auzolana II programan parte hartu dutenen know-how-a baliatzea hurrengo edizioetarako.

Integrazioa eta gizarteratzea	Kontuan hartzekoak
Zerbitzuak ematea: Plangintza ona lan-arloetan.	<p>Behar bezala garatu dira jarduketak hezkuntza-laguntzaren arloan, dokumentu-laguntzan, osasun-laguntzan, hizkuntza-prestakuntzan eta lanbide-heziketan.</p> <p>Boluntarioen funtsezko rola. Gainsaturazioa saihestu behar da, eta lurraldean dauden zerbitzu publikoekiko komunikazioa eta lotura hobetu.</p>
Zerbitzuak ematea: hobekuntza-esparruak.	<p>Prestakuntza espezifikotan (hizkuntzak bereziki) matrikula biziaren aukerak aztertzea.</p> <p>Zerbitzu publiko autonomikoekiko lankidetzaren hobetzea (ibilbide profesionalak, adibidez).</p> <p>Ebaluazio jarraituko mekanismoak txertatzea.</p>
Errefuxiatuen sare sozialak indartzea.	Entitate babesletza-emaileez eta boluntarioez haratago joatea. Familia errefuxiatuen interakzioa areagotzea, haien interesen arabera (guraso-elkarteak, aisia, etab.).
Haien autonomia sustatzea Auzolana Ittik harago.	Autonomia bermatzeko tresnak indartzea. Gizarte-laguntzako beste programa batzuekiko lotura (DSBE).

2. irudia. Babesletza komunitarioko programa bat eratzeko funtsezko gaiak: Auzolana II

Konponbide iraunkorra	Auzolana II errefuxiatuentzako estatuko harrera-sisteman uztartzen da, eta, beraz, programa honen bidez hartu diren pertsonak nazioarteko babesa duten gainerako pertsonen ibilbide juridiko bera dute.
Asentamendu-beharrak	Auzolana II programak behar bezala asetzen ditu abegi emandako errefuxiatuen beharrak; gainera, harremanak sortzen ditu, hasiera-hasieratik, abegi-komunitatearekin, eta hori balio erantsi bat da.
Errefuxiatuen ikuspegia.	Programa pilotuaren ebaluazioa ez da bereziki oinarritu errefuxiatuen ikuspejian. Etorkizuneko edizioetan, ikuspegi hori kontuan hartzea komeni da.
Integrazioaren emaitzak	Estatuko programareko datuak eta adierazlerik ez dagoenez, ez dago konparazio-esparrurik. Babesletza komunitarioaren balio erantsia elkarrikizketan jasotzen da, irizpide kualitatiboarekin.
Errefuxiatu kalteberen berrasantamendua.	Auzolana II programa berrasantamendu-sistema orokorrean uztartzen da, eta batez ere errefuxiatu kalteberei arreta ematea du helburu. Alde horretatik, errefuxiatuen esparruetan zeuden jatorri siriarreko familiak lehenetsi dira.
Eskala	Ekimenak bost familia artatzeko balio izan du, guztira 29 pertsona.
Osagarritasuna	Babesletza komunitarioko programa ekimen pilotu gisa kudeatu da, berrasantamendu-programa orokorraren barruan. Alde horretatik, ez du betetzen berrasantamendu-programa nazionalen tresna osagarria izatearen eskema.
Iritzi publikoa eta abegi-komunitateak	Ez da iritzi publikoari buruzko ikerketarik egin, baina taldeetan izan den parte hartzaiek erakusten du ekimenak interesa piztu duela eta udal hartzaileetan lanerako gaitasuna egon dela. Lan-ildo horretan sakondu behar da, ekimenak abegi-gizartearen duen eragina hobetzeko.
Gizarte zibilaren mobilizazioa	Proiektu pilotua oinarri sozial handiko bi gizarte-entitateetan oinarritu da. Horri esker, dagoeneko antolatuta dagoen gizarte zibilaren zati bat mobilizatu da. Hurrengo edizioetarako, beste gizarte-eragile batzuekiko lankidetzaz zabaldu behar da.
Jasangarritasuna	Auzolana II esperientziak interesa piztu du. Une honetan, beste autonomia-erkidego batzuek ere heldu diote prozesuari; Valentziak, adibidez. Zehaztu behar da orain arte bezala pilotu gisa jarraituko duen edo modu integralagoan eraiikiko den.
Prozesuaren efizientzia	Prozesuak nahiko ondo funtzionatu du. Familia onuradunen prozesua geldoa izan da eta babesletza komunitarioari buruzko informazioa falta izan dute; horrek distortsioak eragin ditu. Bestalde, COVID-19aren pandemiak bere eragina izan du proiektuan, eta egokitzeko erronka bat izan da.
Bermeak	Errefuxiatuentzako bermeak programa orokorrekoetan dauden berberak dira. Babesletza programak funtzionatzen ez badu, abegi-sistema orokorrera bideratuko direla.
Babesletza-taldeen esperientzia	Ezinbestekoa da tokiko laguntza-taldeen prestakuntza indartzea, haien beharrezkoa da talde zaharren esperientzia baliatzea hasten diren talde berrientzat.
Familiak berrelkartzea	Programa pilotua familien berrasantamendurako prozesu gisa planteatu da, baina herrialdean alde aurretiko familia-loturarik egotea eskatu gabe. Programak berrelkartzeko aukera eman die birkokatutako familia errefuxiatuetako kideei.
Testuinguru globala	Auzolana II programa kalteberatasun-egoeran dauden bitanleietan zentratu da, bereziki haien nazionalitatea kontuan hartuta (Siria). Etorkizuneko esperientzietan egokitu daiteke hautaketa hori. Bestalde, bermatu behar da ez dagoela zerbitzu eta prestazioen arteko desberdintasunik programa honen eta beste batzuen artean.

McNally 2020 ereduaren aplikazioa Auzolana II programan.

